

**Ebazpena: R15/2023**

**Espedientea: 5/2015**

Vitoria-Gasteizen, 2023ko otsailaren 17an.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordea honakoek osatzen dute: Violeta Ruiz Almendral presidenteak, eta Sofía Arana Landín eta Javier Muguruza Arrese bokalek. Eta honakoa erabaki dute:

## **ERABAKIA**

Bizkaiko Foru Aldundiak (aurrerantzean, BFA) Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren (aurrerantzean, ZAEA) aurka aurkeztutako gatazkari buruzkoa, zeinaren helburua baita CAV zergapekoak 2013ko maiatzaren 14tik 2014ko urtarrilaren 1era izan duen egoitza fiskala zehaztea. Gatazka hori Arbitraje Batzorde honetan izapidetzen ari da 5/2015 espediente-zenbakiarekin.

## **I. AURREKARIAK**

1.- CAVek 2013ko maiatzaren 14an aldatu zuen egoitza fiskala Camargotik (Kantabria) Alonsotegira (Bizkaia), eta ekitaldi horretako PFEZaren autolikidazioa BFAn aurkezteko betebeharra bete zuen.

2.- 2014an, BFAk zergapekoaren egoitza fiskala egiaztatu zuen, eta zerga-garrantzia zuten inguruabar hauek egiaztatu ziren:

a.- CAVek errekerimendu bati erantzun zion, eta adierazi zuen 2014ko urtarrilaren 1ean egoitza lurralde erkidera atzera aldatu zuela (Burgosera).

b.- CAVeK ere adierazi zuen 2013an bere bizilekua Bizkaira aldatzeko arrazoia lan-arlokoa zela.

c.- Lan- edo enpresa-jarduerari dagokionez, honako inguruabar hauek egiaztatu dira:

- 2013ko maiatzaren 17an, CAVeK bi sozietatetan (NATSL eta HAVSL) zuen partaidetza eskualdatu zion haien bazkide zen bere anaiari; enpresa biek Camargon zuten egoitza (Kantabria).

- 2013an, JMFM (egoitza: Colindres, Kantabria) kontratatu zuen bere kamioietako baten gidari gisa.

- Halaber, CADCSLri (Kantabrian du egoitza) higiezinak alokatu izana adierazi du.

- Kantabrian egoitza duten sozietateei (PPSL eta TCHSL, esaterako) igorritako hainbat faktura egiaztatu dira.

d.- Alonsotegiko egoitza etxebizitza arrebaren eta koinatuaren ohiko bizilekua da.

Ez du okupaziorako titulurik (errentamendua, gela, etab.). Hornigaiak jabeen izenean daude.

e.- Gizarte Segurantzari, Kantabrian helbideratuta jarraitzen du.

f.- Ez dauka EAEko osasun-sistemako txartelik (Osakidetza).

g.- Banku-kontu guztiak Santanderreko (Kantabria) sukurtsal batean daude irekita.

**3.-** 2014ko urriaren 9an, BFAk ZAEAr jakinarazi zion zergadunaren egoitza fiskala Kantabriara aldatzeko proposamena.

**4.-** 2015eko urtarrilaren 22an, ZAEAk ezezkoa eman zion aldaketa-proposamenari, Kantabriako eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ordezkaritza Bereziek txosten bana egin ondoren. Txosten horietan, zerga-garrantzia zuten inguruabar hauek egiaztatu ziren:

a.- 2013ko maiatzaren 21etik 2013ko azaroaren 8ra bitartean, erabilitako edo birgaitutako 3 ibilgailu (kamioi) eta 1 erdi-atoi erosi zituen, eta 4 eragiketak Alonsotegitik egin eta Bizkaian kudeatu zituen.

b.- HAV 2014ko ekainean sartu zen hartzekodunen konkurtsoan.

c.- Titularrak Banco Santanderren kontuetan aitortutako helbidea Alonsotegikoa da.

d.- NATSLk egoitza aldatu zuen 2013ko urtarrilaren 11tik aurrera Bilbora.

e.- 2013ko ekainaren 19an, CAVek ibilgailu bat erosi zuen Sestaoko (Bizkaia) kontzesionario batean, eta hurrengo egunean aurreko autoa eskualdatu zuen.

f.- Bere bezero nagusia TASA izan zen, egoitza fiskala Abanto-Zierbenan (Bizkaia) duena, zehazki, 7 faktura 2013ko ekainetik abendura, 68.025,70 euro guztira.

5.- BFAk 2015eko urtarrilaren 29an planteatu zuen gatazka, eta 5/2015 espediente-zenbakiarekin izapidetu da, prozedura arruntaren bidez, eta hasierako eta amaierako alegazioen hurrengo izapideak eman dira, hilabeteko eperako.

## II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Arbitraje Batzordeak eskumena du gatazka hau ebazteko, Ekonomia Itunaren 66.Bat.c) artikuluan xedatutakoaren arabera; artikulua horrek eginkizun hauek ezartzen baitizkio batzorde horri:

*c) Zergadunen egoitza dela-eta sor litezkeen desadostasunak ebaztea.*

2.- Zergapekoaren egoitza fiskala

Zergapekoaren benetako egoitza lurralde batean edo bestean dagoen azterketan oinarrituta zehaztea biziki da konplexua, baina zantzu-frogen bidez egin liteke.

Bere arrebaren etxean egoteko titulu juridiko gisa jarduten duen kontraturik ez dagoenez, egoitza frogatzeko beste zantzu batzuetara jo behar dugu.

Ohikoena da subjektu batek ohiko gastuak egitea bizi den tokian; hala ere, administrazioetako batek ere ez ditu egiaztatu zergapekoaren kreditu- eta zordunketa-txartelaren gastuak.

Hain ohikoak edo errepikariak ez diren gastuak, hala nola ibilgailu partikularra erostea eta bere jarduerari lotutako inbertsioak, Euskal Autonomia Erkidegoan egin eta kudeatu dira.

Bestalde, bezero nagusia Euskal Autonomia Erkidegokoa da, eta anaiarekin (NATSL) zuen sozietate batek ere bere egoitza fiskala Bizkaira lekualdatu zuen bere partaidetza eskualdatu aurretik, baina ez zen egiaztapen-prozedurarik hasi, ezta, hala bazegokion, egoitza fiskala aldatzekorik ere.

Bereziki adierazgarria da Euskal Autonomia Erkidegoko Osasun Sistemari alta ez eskatu izana, Osakidetzako txartela lortzeko.

Administrazioetako batek ere ez du behar bezala egiaztatu 43.Bat.Bigarrena artikuluko erregelatik ondorioztatu litekeen kokapena.

Laburbilduz, BFAk ez du behar bezala egiaztatu egoitza fiskala Bizkaira aldatzea benetakoa eta eraginkorra ez denik, eta 43.Bat.Hirugarrena artikuluko presuntzioa gailendu behar da.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak hauxe

### **ERABAKITZEN DU**

- 1.- Adieraztea CAVek egoitza fiskala Bizkaian izan zuela eztabaidagai den aldian.
- 2.- Erabaki hau Zerga Administrazioeko Estatuko Agentziari, Bizkaiko Foru Aldundiari eta CAVi jakinaraztea.